

2025eko APIRILAREN 7AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK  
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA 11 zk.

Udaletxeko batzar-aretoan, 2025eko apirilaren 7an, arratsaldeko ordu batean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko.

Batzarkide hauek bertaratu dira:

**Batzarburua** XABIER TXURRUKA FERNANDEZ JN.

**Batzarkideak** GARBIÑE OIARBIDE IRURETAGOiena AND  
IRUNE URBIETA ALBERDI AND  
IKER BASURKO DE MIGUEL JN.  
GERVASIO GABIRONDO FERNANDEZ JN.  
INAXIO ILLARRAMENDI LIZARRETA JN.

**Idazkaria** AMAIA GORROTXATEGI ZUBIZARRETA AND.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaia aztertu eta eztabaidatu ditu Tokiko Gobernu Batzarrak.

**EGUNEKO AZTERGAIK**

**1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA**

2025eko martxoaren 31ko bilkuraren akta aho batez onartu dute, zuzenketarik egin gabe.

**2.- ZARAUZKO UDALEKO KIROL JARDUEREKIN LOTUTAKO ZERBITZUA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOAREN 050/2025 EBAZPENA ONARTZEA (KEAO), KLAUSULA-AGIRI BERRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA**

Espedienteak: 2024IK200008 / 2025IK200007

2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, ZARAUZKO UDALEKO KIROL JARDUEREKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK emateko kontratua adjudikatzeko administrazio-

klausulen eta baldintza teknikoan agiriak onartzea eta prozedura irekiaren deialdia egitea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak.

Lizitazioaren iragarkia 2024ko ekainaren 25ean Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera eta Zarauzko Udaleko kontratatzailearen profilerara bidali zen. Eskaintzak aurkezteko epea 2024ko uztailaren 23an amaitu zen, eta epe horretan honako enpresa hauek aurkeztu zituzten bereak:

- BPXPORT XXI SL
- EULEN, S.A.
- NEO INSTALACIONES DEPORTIVAS, S.L.
- ATHLON SINTAGMIA, S.L.

Zegokion administrazio-espeditzea izapidetu ondoren, 2024ko urriaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bilkuran, aipatutako lana egiteko kontratua NEO INSTALACIONES DEPORTIVAS, S.L. enpresari adjudikatzea erabaki zuen.

2024ko azaroaren 15ean ATHLON KUDEAKETA, S.L. enpresak, eta 2024ko azaroaren 22an EULEN, S.A. enpresak EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOAN errekurtsio bereziak tartearri zituzten, 2024ko urriaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako arestian aipaturiko lizitazioaren adjudikazioaren aurka.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOAK lehenengo errekurtsioa (ATHLON KUDEAKETA, S.L. enpresak jarritakoa), onartu egin du 2025eko martxoaren 21eko 050/2025 ebazpenaren bidez, eta bigarrena, berriz EULEN, S.A. enpresak jarritako errekurtsioa ebazteko prozedura amaitutzat jotzea ebatzi du, lehenengo errekurtsioaren ebazpena kontuan izanda; ondorioz, 050/2025 ebazpenaren baitan hurrengoa erabaki du: aurkaratutako egintza baliogabetzea eta adjudikazio prozedura ezeztatzea.

Hori horrela, 2025eko martxoaren 25ean egindako ezohiko bileran, Kontratazio Mahai Iraunkorrak proposatu zuen EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOAREN 2025ko martxoaren 21eko 050/2025 ebazpena betetzea.

Ondorioz, ZARAUZKO UDALEKO KIROL JARDUEREKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK kontratatzeke Administrazio-Klausula Zehatzen agiria eta Baldintzak teknikoan agiria berridatzi egin dira.

Aurreko guztia kontuan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

**Lehena.-** EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOAREN 2025ko martxoaren 21eko 050/2025 betez, 2024ko urriaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak ZARAUZKO UDALEKO KIROL JARDUEREKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK emateko erabakitako adjudikazioa baliogabetzea eta adjudikazio prozedura ezeztatzea.

**Bigarrena.-** Erabakia hau lizitazioan parte hartu duten enpresei eta EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOAri jakinaraztea.

**Hirugarrena.-** ZARAUZKO UDALEKO KIROL JARDUEREKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK kontratatzeko Administrazio-Klausula Zehatzen agiria eta Baldintza Teknikoen agiria berriak onartzea.

**Laugarrena.-** Aipatutako kontratua adjudikatzeko, prozedura irekiaren deialdia egitea, orduko gehienezko prezio hauekin:

6.1.1 Zerbitzua- Harrera, zainketa, sarrera kontrola eta lan administratiboak: 65,89 euro/orduko, BEZ barne (54,46 euro/orduko + 11,44 euro %21ko BEZarena).

6.1.2 Zerbitzua - Salbamendua eta sorospena: 76,49 euro/orduko, BEZ barne (63,21 euro/orduko + 13,27 euro %21ko BEZarena).

6.1.3 Zerbitzua - Taldekako eta bakarkako jarduera gidatuak: 70,78 euro/orduko, BEZ barne (58,50 euro/orduko + 12,28 euro %21ko BEZarena).

6.1.4 Zerbitzua- Fitnessa eta gimnasioak zerbitzua: 70,78 euro/orduko, BEZ barne (58,50 euro/orduko + 12,28 euro %21ko BEZarena).

Aurreko prezio guztiak gehienekoak izango dira; hortaz, lizitatuzaileek prezio horiek beherantz hobetzeko aukera izango dute. Lizitazio-prezinoa gainditzen duen eskaintzarik ez da onartuko.

Kontratu honen zerbitzuen urteko gehienezko prezioa hauxe da: 1.327.082,14 euro BEZ barne (1.096.762,10 euro + 230.320,04 euro, BEZarena) kopuru horretan sartuta egongo dira zerbitzutik eratorritako era guztietako gastuak.

**Bosgarrena.-** Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo udal aurrekontuan, honako partida 1 1401.227.11.341.00 2025 (4821) *KIROL ZERBITZUAK*.

Halaber, zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko konpromisoa hartu du Udalak.

**Seigarrena.-** Kontratazio-espeditentean nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean iragartzea."

### 3.- ESKARI GALDERAK

Ez du inork hitz egin gai-zerrendako puntu honetan.



Aztertzeko besterik ezean, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko ordu bata eta bost direnean eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.



EKS | CSV: **ESKUae6b870a-2bf4-46fc-a695-cb6342cf7565**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910>